

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ENPLEGUAREN ETA GARAPEN EKONOMIKO IRAUNKORRAREN SAILA

Gasteizen enpresa txikiak sortu, berritu eta lehiakortasuna sustatzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programaren deialdiko "enpresak sortzea" atalari dagokion ebazpena jakinaraztea (2016ko maiatzaren 9ko ALHAOn argitaratua, 52. zk)

Iragarki honen bidez Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariak 2016ko urriaren 20an emandako ebazpena jakinarazten zaie interesdunei, deialdia arautzen duten oinarrien 14.5 klausulan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.6 artikuluan, eta udalaren Kontu-hartzailetza Nagusiak 2016ko martxoaren 8an emandako zuzentarauan ezarritakoarekin bat. Hauxe da ebazpena:

"2016ko apirilaren 22an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak enpresak sortu, berritu eta horien lehiakortasuna hobetzeko laguntza-programarako deialdia eta oinarriak (2016ko apirilaren 8ko eta 13ko ALHAOn, 52 eta 54. zk). Deialdiak 118.978,00 euroko zuzkidura du enpresak sortzeko laguntza-programarako, 2016ko udal aurrekontuko 0821.4331.489.67 partidaren kontura eta, 70.000,00 euroko zuzkidura berrikuntza sustatu eta lehiakortasuna hobetzeko laguntza-programarako, 0821.4331.480.02 partidaren kontura.

2016ko uztailaren 15ean amaitu zen eskabideak aurkezteko epea. 2016ko urriaren 25eko idazki bat tarteko, enpresa zerbitzuko teknikariek 2016ko azaroaren 9an jakinarazi zuten berrikuntzarako eta lehiakortasuna hobetzeko laguntzen baitan hirurogeita hamaika (71) eskabide jaso zirela epearen barruan, eta horietako hogeita hamalauk (34) ez zituztela deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen.

Eskabideak aztertuta, Hautatze eta Jarraipen Batzordeak 2016ko azaroaren 10ean egindako bilkuran aztertu eta eztabaidatu ziren. Hogeita hamazazpik (37) deialdiaren betekizunak betetzen zituztela konprobatu eta proiektuak baloratu eta hurrenkeran jarri ondoren, deialdia ebazteko proposamena aurkeztu zitzaion Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren zinegotzi ordezkariari. Bertan hamabi (12) eskabideri laguntza ematea proposatzen zen. Laguntza horiekin laguntzetarako zuzkidura agortzen zenez, gainerako hogeita bostekin (25) itxarote zerrenda bat sortzea ere proposatzen zen, hartara Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailak enplegua sortzeko eta jarduera ekonomikoa sustatzeko dituen beste programetan dirua soberan geratuz gero, laguntza hauetarako baliatzerik izan zedin. Bestetik, hogeita hamalau (34) eskabide ezezteak proposatu zen, betekizunak ez betetzeagatik.

Deialdian ezarritako prozeduraren arabera, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariari dagokio eskabideak ebaztea.

Adierazitakoarekin bat etorritik, udal aurrekontuetan kreditu-zuzkidura nahikoa egonik, Hautatze eta Jarraipen Batzordeak egindako proposamena ikusirik eta eskumenak eskuordetzeko 2015eko martxoaren 6ko erabakia kontuan izanik, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariak hau, ebatzi du:

Lehena. Berrikuntza sustatu eta lehiakortasuna bultzatzeko laguntzak ukatzea ondorengo taulan adierazten direnei, deialdiaren oinarrietan xedatutako baldintzak betetzen ez dituztelako:

Enpresa	Baliosteko irizpideak (5-II oinarria)			Guztira	Diruz laguntzeko inbertsioa	Ehunekoa	Diru-laguntza teorikoa	Benetako diru-laguntza
	1	2	3					
Optimus 3D SL	50	10	20	80	151.267,80 euro	40,00	8.000,00 euro	8.000,00 euro
Frios Industriales Heredia SL	40	20	20	80	45.687,35 euro	40,00	8.000,00 euro	8.000,00 euro
Airestudio Geoinformation Technologies S. Coop.	40	30	10	80	10.414,00 euro	40,00	4.165,60 euro	4.165,60 euro
Ayerbe Industrial de Motores SA	40	20	20	80	21.789,82 euro	40,00	8.000,00 euro	8.000,00 euro
Flanker Mobiliario SA	30	30	20	80	25.000,00 euro	40,00	8.000,00 euro	8.000,00 euro
Tecnología y Multihusillos SL	50	25	4	79	4.891,17 euro	39,33	1.923,86 euro	1.923,86 euro
Forza Herramientas SL	50	20	8	78	8.820,00 euro	38,67	3.410,40 euro	3.410,40 euro
Martín Ortíz de Galisteo, Oliver	40	20	16	76	17.262,30 euro	37,33	6.444,59 euro	6.444,59 euro
Sánchez Sanz, Juan Carlos	40	15	20	75	74.005,20 euro	36,67	8.000,00 euro	8.000,00 euro
Ruesga Lopez, Beatriz	40	25	10	75	10.900,00 euro	36,67	3.996,67 euro	3.996,67 euro
Envíos y Servicios Flor 10 SL	40	20	15	75	15.517,50 euro	36,67	5.689,75 euro	5.689,75 euro
Luznor Desarrollos Electrónicos SL	40	20	13	73	13.280,55 euro	35,33	4.692,46 euro	4.369,13 euro
						Guztira	70.323,33 euro	70.000,00 euro

Bigarrena. Aurkeztutako proiektuek deialdiko baldintzak betetzen dituztela ikusirik, eta proiektuak baloratu eta hurrenkeran jarrita (5. eta 6. oinarriak), berrikuntza sustatu eta lehiakortasuna hobetzeko laguntza hauek ematea erabaki du, adierazitako kopuruetan, zeintzuk deialdiaren zuzkidura agortzen baitute:

Enpresa	Arrazoia
Arrakala Koop Elkarte Txikia	5. oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez
Tot Garais SL	5. oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez
Gorospe Egaña, Milagros	2. oinarria: helbide soziala eta fiskala Gasteiztik kanpo
Esperia SA	5. oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez
Herramientas de Construcción Urbina SL	4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez
Osoak SAL	5. oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez
Gestoría Bengoa SL	4. eta 5. oinarriak: gutxieneko inbertsiorik ez, ezta gutxieneko puntuaziorik ere
Bengoa Asesores SL	4. eta 5. oinarriak: gutxieneko inbertsiorik ez, ezta gutxieneko puntuaziorik ere
Emaize Centro Sexológico SL	5. oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez
Arterlore Home Sa	2. oinarria: helbide soziala eta fiskala Gasteiztik kanpo
Soluciones Integrales Mantenimiento Asesoría y Gestión SL	4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez
Tarritu SL	5. oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez
Leiva Peña, Enrique	5. oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez
GM2 Distribución de Artículos de Motor SL	4. oinarria: zuritu gabeko inbertsioa
I+Med S. Coop Pequeña	5. oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez
Mecanizados Iriarte SL	4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez
Cafes Eguía SL	4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez
General Alavesa de Frutas y Verduras SL	5. oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez
IKM Support Network SL	2. oinarria: JEZ ez da laguntzen
Cruz Araba SL	5. oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez
Gastecom SL	5. oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez
Displacar SLU	5. oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez
Gran Turismo Araba SA	5. oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez
Alabus SL	5. oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez
Luminosos Garay SL	4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez
Ecoarte S. Coop. Pequeña	5. oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez
Ingeniería Arket SL	4. eta 5. oinarriak: gutxieneko inbertsiorik ez, ezta gutxieneko puntuaziorik ere
Automach Ingeniería SL	5. oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez
Ortiz de Zárate, Iker	2. oinarria: helbide soziala eta fiskala Gasteiztik kanpo z
Relente Hostelería SL	2. oinarria: JEZ ez da laguntzen
Diseños Daco SL	5. oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez
Cuenca Hernández, María Soledad	4. oinarria: gutxieneko inbertsiorik ez
Eko Gasteiz SL	5. oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez
Acosta Calvo, Orzi	5. oinarria: gutxieneko puntuaziorik ez

Hirugarrena. Deialdiko zuzkidura ekonomikoa agortuta baldintzak betetzen dituzten hainbat eskabide laguntzarik gabe geratu denez, itxarote-zerrenda sortzea onestea, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailak 2016an enplegua eta ekonomia-jarduera sustatzeko dituen beste programetan saldoa soberan geratuz gero laguntza hauetan baliatzeko, guztia bertan ezarritako hurrenkeran:

Enpresa	Balioesteko irizpideak (5-II oinarria)			Guztira	Erregistro zenbakia	Proposatutako diru-laguntza
	1	2	3			
Luznor Desarrollos Electrónicos SL	40	20	13	73	2016438652	323,33 euro
Dental Angulema SLP	35	15	20	70	2016434207	8.000,00 euro
Mediplan Sport SL	30	20	20	70	2016439182	8.000,00 euro
Fit Energy SL	40	5	20	65	2016439308	8.000,00 euro
Lagon Rubber SL	30	15	20	65	2016439230	6.878,44 euro
Food Style SL	30	15	20	65	2016439251	8.000,00 euro
Soldaduras y Montajes SL	30	15	20	65	2016439262	8.000,00 euro
Rodamientos Arizti SL	25	20	20	65	2016437348	8.000,00 euro
García y Arrausi SI	25	20	20	65	2016438406	8.000,00 euro
Pinturas Industriales Maná SL	35	10	19	64	2016438492	5.759,02 euro
Premontajes y Manufacturas Gasteiz SL	35	20	8	63	2016438034	2.525,22 euro
Aleaciones Alavesas SA	30	20	10	60	2016439221	2.704,90 euro
Serigrafía Álava SA	20	20	20	60	2016437199	8.000,00 euro
Carrocerías Bekolarra SAL	25	15	18	58	2016438959	4.663,87 euro
Clínica Veterinaria Arandilla SC	25	25	7	57	2016438319	1.948,67 euro
Caldito Calvo, Jon	40	10	6	56	2016437092	1.458,99 euro
On Global Language Marketing SL	35	15	5	55	2016439183	1.248,33 euro
García Rodríguez, Raúl	30	15	10	55	2016439401	2.423,40 euro
Fitness Gasteiz SL	20	15	20	55	2016436204	5.381,60 euro
Industrial Fapise SA	10	25	20	55	2016439290	8.000,00 euro
Umbor SA	20	25	8	53	2016438689	1.881,00 euro
Fabricaciones Gasteiz SL	20	15	18	53	2016438822	4.015,88 euro
Pascual Martínez de Zuazo, Roberto	25	15	11	51	2016437134	2.273,33 euro
Tecnologías de Automatización y Control Taucon SA	10	30	11	51	2016435117	2.320,99 euro
Talleres Gamuar SL	20	10	20	50	2016432933	5.000,00 euro
F M Control SL	0	30	20	50	2016439492	7.418,80 euro

Laugarrena. Enpresak sustatzeko udal zerbitzuko teknikariak izendatzea diruz lagundutako enpresa-proiektu horien tutoretza eta jarraipenaren erantzule.

Bosgarrena. Berrikuntza sustatu eta lehiakortasuna hobetzeko laguntza-deialdiko laguntzen kopurua (70.000,00 euro) jasota uztea, 2016rako onartutako udal aurrekontuko 0821.4331.480.02 partidaren kontura, eta onuradunei ordaintzea, deialdiko zazpigarren oinarrian ezarritakoari jarraiki.

Seigarrena. Diru-laguntzen onuradunek deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, laguntza horiek bertan behera utzi ahalko dira, eta laguntza osoa edo zati bat ordainduta badago jasotako laguntza itzultzeko eskatuko zaie.

Interesdunei erabakiaren berri ematen zaie. eta orobat jakinaraztea ebazpenaren aurka, administrazio-bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko dela zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazteko iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, aukeran, berraztertze

errekurtsoa aurkeztu ahalko da, ebazpena eman duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, aipatutako jakinarazpenetik; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.”

Vitoria-Gasteizen, 2016ko azaroaren 16an

Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI